

Euskara normaltzeko bideak

Koldo Zuazo

IRAGANARI BEGIRATUA

Euskararen historia luzean, bi mila urte ingurukoa da guk, ondo edo txarto, eza-gutzen dugun denbora tarte, eta bi mila urteko denbora tarte horretan, euskara beti agertu da zerbaiten gabezia, beti agertu da inoren menpean. Baina bi mila urteko denbora tarte horretan, gabeziak betetzeko nahia, eta gainerako hizkuntzen maila berean jartzeko gogoia ere aspalditik eta sarri agertu dira. Nik neuk, dena dela, XX. mendearen erdialdean egin zen ahalegina jarriko nuke beste guztien gainean.

Benetako iraultza gertatu zen XX. mendearen erdialdean, eta hiru ardatz nagusi izan zituen iraultza hark. *Ikastola* izan zen lehen ardatza, eta ikastolari esker, euskara lehen aldiz sartu zen irakaskuntzan. Gau-eskola izan zen bigarren ardatza, eta gau-eskolari esker, hainbat lagun sartu zen Euskararen Herrian, eta Euskara Batua izan zen hirugarren ardatza. Eta nik neuk esango nuke hirugarren hauxe izan zela ardatzik oinarritzkoena, azken batean, bai ikastolak eta bai gau-eskolek Euskara Batuari esker egin zituelako aurrera. Eta gehiago ere esango nuke: euskara normaltze bidean, Euskara Batua dela, ziurren-ziurrenera, sekula guztian egin den urratsik esanguratsuenena.

Eta gauzak nola diren: euskarak sekula guztian bizi izan duen egoerarik okerrenetakoan sortu zen Euskara Batua, Hego Euskal Herria diktadura militarren azpian zela, eta, beharbada, euskara bera ere sekula baino ahulago zela. Gogora dezagun Pedro Irizarrek, 1973an –Euskara Batua sortu berritan, beraz–, argitaratutako emaitza: 533.500 euskaldun inguru baizik ez ziren guztira, eta 1.900 baizik ez, esate baterako, Araba osoan.

Egoera zail horretan Euskara Batua nola sendotu ahal izan zen ulertzeko, gutxienik ere lau arrazoi izan behar ditugu kontuan: a) hizkuntzalari handi bat, Koldo Mitxelena, izan zela gidaria; b) Mitxelenaren inguruan, euskaltzain talde langile eta esanekoa elkartu zela; c) talde horrek gertatutako egitasmoa bultzatzeko prest, irakasle, idazle, kazetari eta euskaltzale multzo hazia osatu zela; d) –eta hauxe denetan esanguratsuenena– egitasmoa bera zuzena eta zentzuzkoa zela.

Erdialdeko euskalkian, hau da, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean egiten den hizkeran oinarritu zen Euskara Batua, eta hauexek ziren aukeraren arrazoiak:

a. *Hizkuntzazkoak*. Erdialdeko euskalkia da euskaldun guztiendako bilgune ego-kia. Mendebalekoa edo Bizkai aldekoa, urruna eta arrotza egiten zaie gainerako euskaldunei, eta berdintsu gertatzen da zuberotarrarekin ere, beste alderdian.

b. *Demolinguistikoak*. Erdigune horretan eta mendebalean zeuden 1968an —eta baita gaur egun ere— euskaldunik gehienak. Era berean, Gipuzkoan eta bere alde-mentetan zeukan —eta dauka— euskarak indarririk handiena: Lea-Artibai eskualdean, Busturialdean eta Durangaldean, Bizkaiari dagokionez, eta Bortzirietan, Bertizaranan, Baztanen, Malerrekan, Basaburuan, Larraunen, Araitzen eta Sakanan, Nafarroari dagokionez.

c. *Soziolinguistikoak*. XVIII. mendetik hona, euskara giputza izan da —eta Beterrikoa, zehatzago— prestijioa eta ospea izan duena.

d. *Ekonomia eta kulturazkoak*. Bilbo da, jakina, Euskal Herriko hiri nagusia, baina ez da euskalduna. Akats berbera dute Gasteizek, Iruñeak eta Baiona-Angelu-Miarritze (B-A-M) hiribilguneak.

Berezia da —eta gainerako herrialdeen aldean, guztiz bestelakoa— Gipuzkoaren egitura. Hemen ez dago hiri handi bakarrik. Ekonomiariek diotenez, ez du egitura *makrozefalikorik*, edo denok ulertzeko moduan esateko, ez du *buru bakarreko* egiturarik. Alderantziz, egitura *multipolarrekoa* da, edo denok ulertzeko moduan esateko, *buru anitzekoa*. Hauexek dira buruak: Irun-Hondarribia, Oiartzun-Errenteria-Lezo-Pasaia, Donostia, Lasarte-Oria-Hernani-Andoain, Tolosa, Beasain-Ordizia, Urretxu-Zumarraga-Legazpi, Azkoitia-Azpeitia, Arrasate-Aretxabaleta-Oñati, Bergara-Eibar-Elgoibar. Buru hauek, gainera, bata bestearekin ondo samar lotuta daude, eta sare bat osatzen dute. Azken batean, beraz, Gipuzkoa bere osotasunean hartuta da hiri handi bat, Ibon Sarasolak aspaldi esan zuenez.

Ezaugarri hauek guztiok kontuan izanda, zuzena eta zentzuzkoa begitantzen zait Euskara Batua erdialdeko euskalkian oinarritu izana, eta horren ondorioa da, ezbairik gabe, lortu duen arrakasta.

Orain hogeita hamahiru urte, 1968an, abiatu zen Euskara Batua, eta bada, dagoeneko, ondorioak aztertu ahal izateko garaia. Zeharo aldekoa da nik neuk egiten dudan ondorioa, agerian eta begibistan daudelako Euskara Batuak ekarri dituen onurak. Hona hemen, nire iritziz, denetan esanguratsuenak direnak:

a. Edozein alderditako euskaldunak elkartzen garenean, gero eta zailtasun gutxiago daukagu bata besteari ulertzeko. Ez daukagu nahitaz erdarara jo beharrik, dagoeneko.

b. Edozein gai darabilgunean, gero eta zailtasun gutxiago daukagu euskaraz jarduteko. Gairik tekniko eta jasoenez dihardugunean ere, ez daukagu nahitaz erdarara jo beharrik, dagoeneko.

c. Hizkuntzaren gainean erabakiren bat hartu behar denean, Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartuz jotzen dugu. Ez diogu Ipar Euskal Herriari bakarrik, edo Hego Euskal Herriari bakarrik, edo Gipuzkoari edo Bizkaiari bakarrik begiratzen. Bada oraindik zuzendu eta aldatu beharreko jokabide franko, eta zeharo bat nator Ibon Sarasolak (1997) salatzen dituen ajeekin, hau da, Hegoaldean gehiegi begiratzen zaiola Hegoaldekoari eta, batez ere, gaztelaniari, eta Iparraldean, era berean, gehiegi begiratzen zaiola Iparraldekoari eta, batez ere, frantsesari. Baina, ajeak aje, asko aurreratu da 1960tik hona, eta geure herrialdea edo geure euskaldetxoa ez ezik, Euskal Herria bera ere onartzen eta ikusten dugu gaur egun.

d. Euskara ikasi dutenen kopurua ikaragarri hazi da, eta hori, jakina, ez zen gertatuko, euskara euskalkitan zatituta egotera.

e. Euskara ikasi duten horiei guztioi esker, mendez mende murriztuaz eta estutuaz etorri diren euskararen mugak zeharo hautsi dira, eta Bizkaiko mendebala,

Nafarroako hegoaldea eta ekialdea, Baiona-Angelu-Miarritze hiribilgunea, Araba osoa, eta baita atzerriko lagun asko eta asko ere Euskararen Herrian sartu dira.

f. Euskararen prestijioa hazi egin da. Ez da, dagoeneko, dialekto sorta; hizkuntza da. Hizkuntza txikia beti ere, baina hizkuntza hala ere.

ESTANDARGINTZAREN ORAINA ETA GEROA

Euskararen estandargintzak joan den hogeita hamahiru urteotan aurrerakuntza handia egin duen arren, bide luzea daukagu oraindik ere ibiltzeko. Beste hiru urrats handi eman beharra daukagu Euskara Batua erabat amaitu eta gauzatuko badugu:

a. Hizkuntza bere osotasun guztian arautu behar da.

b. Euskaldun guzti-guztiek erabat onartu behar dute Euskaltzaindiak aurkeztu duen eredua.

c. Euskaldun guztiek eredu hori ezagutu, eta erraz eta eroso erabiltzeko gauza izan behar dute.

Hiru horietatik dira Euskara Batua zeharo eta erabat errotzeko bete behar diren baldintzak, eta ikus dezagun astiroago zein den gaur egungo egoera.

Alde batetik, eta eredu estandarrari berari dagokionez, arlorik oinarritzkoenak arautu dira joan den hogeita hamahiru urteotan: aditza, deklinabidea, eta baita beste hainbat gauza ere, baina egindako hori guztiori gorabehera, beste kontu eta kontutxo asko dago oraindik argitzeko eta zehazteko: ahoskera dela, azentua dela... denetarik dago oraindik ere eginkizun.

Badira, bigarrenik, Euskara Batua beharra onartzen ez dutenak, eta euren euskalkiari –eta, batez ere, erdarari– loturik jarraitzen dutenak. Badira, horiekin batera, Euskaltzaindiak aurkeztutako egitasmoaren orde, beste ereduren bat (lapurtera klasikoa dela, edo besterik dela) nahiago dutenak.

Eta badira, hirugarrenik, hitzez Euskara Batua onartu arren, behar bezala ezagutu ez, eta eroso erabiltzeko gauza ez direnak.

Beraz, nahiz eta Euskara Batuak arrakasta eta aurrerakuntza handia izan duen, euskara erabat estandarizatuko bada, eta normalizazio bidean benetan aurrera egingo bada, ezinbestean egin beharko ditugu hiru urrats horiek.

EUSKARA BATUAREN GAINEKO OKER ULERTUAK

Baina euskara erabat normalduko bada, oso barneratuak ditugun uste ustel bi ere zeharo baztertu beharko dira. Uste dute batzuek Euskara Batua dela euskara, eta, uste dute besteek, Euskara Batua dela euskara ona. Uste bi horiek ez dira inondik inora ere egiak eta zuzenak, eta kalte askoren sortzaile dira, gainera.

1. Hizkuntzaren osagaiak

Lehenengo eta behin, gauza bat izan behar dugu ondo gogoan: osotasun bat dela hizkuntza. Hasteko, hiztun bakoitzak badu hitz egiteko bere era berezia; badu bere idiolektoa. Hiztun bakoitzaren era berezi hori ere aldatu egiten da, gainera, egoeraren arabera. Norekin gauden, non gauden, zertaz dihardugun, badu horrek guztiorrek une

eta gune bakoitzean egiten dugun hizkerarekin zerikusia. Baditugu, besteak beste, geure lagunarteko hizkera eta geure hizkera jaso.

Haurrekin gaudenerako ere badugu haur hizkera berezia, eta gazteek ere badute hain bizia eta hain indartsua izan ohi den gazte hizkera. Nork bere lanbidean edo bere esparruan ere bere argot edo hizkera zehatza izan ohi du, eta horrekin guztiorrekin batera, eremu jakin bateko dialektoak, edo gizarte esparru jakin bateko soziolektoak izan ohi dira.

Hizkera horiek guztiok daude hizkuntza “normaletan”, eta, hain zuzen, ugaritasun horrexek ematen die hizkuntzei aberastasuna eta, hiztunei, hizkuntzarekin jolas-teko eta hizkuntzaz gozatzeko aukera. Besterik da, ostera, euskarari gertatzen zaiona, ondoren ikusiko dugun bezala.

Oso galdua eta murriztua dago haur hizkera. Hain aspaldikoak ez diren *mama* ‘ura’, *papa* ‘ogia’, *nene* ‘esnea’, *pipi* ‘txoria’, *popo* ‘automobila’, *apapa joan* ‘kalera irten’ tankerako hitz eta esapideak ahaztuak dituzte gaur egungo guraso gazte gehienek. Erdarazko hitz eta esapideak dituzte ordezko, oraindik orain, Bizkaiko hondar-tza batean ginela, andrazko batek ume txiki bati esan zion *emon besito, kariño!* esaldiak argiro erakusten duenez¹.

Gazte euskaldunen hizkerak ere erdaran dauka bere harrobia, Imanol Esnaolaren azterketa xume batek (ikus Rodríguez & Esnaola 1998: 117-134) erakutsi berri duenez. Dena dela, inork erakutsi beharrik gabe, gutariko bakoitzak ere erraz eta laster ikus dezake, geure eguneroko jardun arruntean, gazteen –eta hain gazte ez direnen– lagunarteko hizkera zertan den.

Inork erakutsi beharrik gabe ikusten da, era berean, non dagoen gure argotaren jatorria: erdaran, honena ere. Ikasle eta irakasleak, medikuak eta presoak izan ohi dira argoten sortzailerik emankorrenetakoak, eta hiru esparru horietan ordezkaririk franko dugun arren Euskal Herrian, ez gara, nonbait, geure baitatik ezer sortzeko gauza.

Euskaldunon berdintasunaren eta hidalgia orokorraren mitoak gorabehera, “gaine-nekoak” eta “azpikoak” aspaldi luzetik izan dira Euskal Herrian, baina erdaretara jo-tzea izan da “gaineok”, “azpikoengandik” bereiztearren, sarrien hartu duten joka-bidea².

Euskaldunok ezertan aberatsak eta ugariak izan bagara, dialektoetan izan gara, eta, aberastasun horren nolabaiteko froga-edo, hitz berezia ere sortu dugu dialektoak izendatzeko: euskalkiak. Baina gainbehera datoz horiek ere. Gurasoak euskalkidun

1 Gauzak, nonbait, ez erabat zuri ez erabat beltz ez direnez, euskararen osasun ona erakusten duten argibideak ere ba omen diran han-hemen. Iñigo Aranbarrik (2001: 63) kontatu berri duenez, ume txiki batek zeruan hegazkina ikusi, eta *pipi-popo* hitza esan omen zion aitari. Txoria *pipi* eta automobila *popo* zirela jakiteaz gainera, hitz berria sortzeko sena ere bazuen, beraz, ume horrek. Eta, harrigarriena, zera: Bilbo erdiko Doña Casilda parkean gertatu zela “miraria”. Zalantza bat badut, dena dela, gertakari honen inguruan: Aranbarri poeta edo Aranbarri lekuko hotz eta zintzoa ote zen Doña Casilda parkeko “miraria” ikusi zuena.

2 Salbuespen banaka bat bada, dena dela. Bonapartek (in Urkijo 1910: 257), Bergarako egoeraz ziharduela, Bruno Etxenikeri idatzi ziona daukat, esate baterako, gogoan: “Quand je dis biscayen et non pas guipuscoan de Vergara, je sais fort bien que cette manière de parler déplaît à Messieurs les Vergarais qui se piquent d’être de purs guipuscoans. Je ne dis pas non, de même que je ne nie pas que les sermons de leurs curés les plus instruits et que souvent même le langage ordinaire des personnes les mieux élevées soient non seulement en guipuscoan, mais même dans la variété la plus pure de Beterri”. Bergarako handi jendeak, beraz, Beterriko euskara giputza erabiltzen zuten herri xehearen-gandik bereiztearren, baina, jakina, euskarak osasun eta bizitasun hobea zuen garaiko kontuak dira horiek, eta oso eremu euskaldun eta euskaltzalean gertatutakoak. Euskal Herriaren historian salbuespenak, azken batean.

hutsak eta seme-alabak erabateko euskalkigabeak dira leku askotan, eta euskalkiari eusten dion zenbaitek ere, batua, euskalkia eta –nola ez, ba?– erdara darabiltza, hirurak nahasian. Gauza xebererik ere ikusten da han-hemen. Esate baterako, eskoletako ahozko azterketetan, eta zenbait lan lortzeko egin ohi diren elkarrizketetan, Euskara Batuan ez daudela eroso dioten batzuek, euskalkian hasi, eta erdi-euskalkia eta erdi-batua egiten dute gero. Txirrita bertsolariak esango lukeenez, Batua ikasi ez, eta euskalkia ahaztu, gertatu zaigu, nonbait, oraingooi ere.

Laburbilduaz, gauza bat dakar egoera honek agerira: euskararen osasuna ez dela nahi genukeen bezain ona. Egia da euskararen osagai bat, Euskara Batua, asko indartu dela, baina *hizkera bat* besterik ez da Euskara Batua, eta euskarak osasuna izango badu, bere osagai guztiak, bere *hizkera guztiak* indartu behar dira.

Garbi dago euskara asko soildu eta asko erkindu dela oso denbora tarte laburrean. Oso urte gutxitan galdu da hitanoa, oso urte gutxitan galdu dira hizkera bateko eta besteko azentuak, eta oso urte gutxitan galdu dira lagunarteko hitz eta esapideak. Badirudi euskaldun berrien lana samurtzea izan dela joan den hamarkadetako estrategia, eta estrategia horren barruan hartu dela hizkuntza soiltzeko eta errazteko bidea.

Euskara ikasi behar dutenendako, jakina, samurragoa da hitanorik gabeko, azenturik gabeko, sinonimorik gabeko, eta errejistrorik gabeko euskara ikastea, baina kontua zera da: hizkuntzak ez direla ikasteko bakarrik. Jolasteko eta gozatzeko dira, batez ere, hizkuntzak, eta jolasteko eta gozatzeko gaitasun horixe da gaur egungo euskarak nabarmen galdu duena. Hainbesteko soiltzeak gozakaitz bihurtu du, eta hori dela-eta, euskaratik ihesi joan, eta erdaran aurkitzen du euskaldun askok babesa eta jolasa. Gaur egungo gazte askok euskaraz –eta oso euskara onean, gainera– egin ohi ditu eskolako zereginak, baina erosoago eta lasaiago ari dira erdaraz lagunarteko giroan, adar soinuak dihardutenean, edo barreneko sentimenak adierazi nahi dituztenean.

Euskararen gaixotasun “kronikoei”, hau da, bere betiko txikitetasunari eta aldameneko hizkuntza handiekin lehian jardun beharri, beste bat gehitu zaio, beraz, orain: gozakaitz izatearena, hiztunak erakartzeko indarra galtzearena.

Baina ez da hori agertu den gaixotasun berri bakarra. Beste bat ere hedatu da horrekin batera. Erdaratik kopiatzera mugatu gara, eta nabarmen ihartu zaigu guk geuk sortzeko ahalmena. Eta garbi dago gaixotasun bi hauek ez direla nolanhikoak; terminalak dira, hizkuntzak heriotze bidera eramaten dituztenak.

2. Hizkeren esparruak

Euskara Batua dela euskara ona uste du gure arteko askok, eta hori ez da erabat gezurra. Behinik behin, ona da *zenbaitek* darabilen Euskara Batua. Baina egia alderdi bat besterik ez da hori.

Kontua da nahastu eta ilundu egin dela Euskara Batuaren izaera eta sortzeko arrazoia. Uste dute batzuek, euskalkiak txarrak eta ezgauza zirelako asmatu zela Euskara Batua, eta hori ez da inondik inora egia. Euskara Batua ez zen egin, esate baterako, euskara zuberotarra txarra zelako. Euskara zuberotarrak ederki asko bete ditu, mende askotan zehar, zuberotar gehieneguneroko beharrak. Arazoak, jakina, zuberotarrak Zuberoatik irteten direnean, edo zuberotar ez direnak Zuberoan sartzen direnean, edo Zuberoako neska-mutilak Kanboko “Xalbador” ikastolara joaten dire-

nean, edo Zuberoko gazteak euren unibertitate ikasketak Hego Euskal Herrian, euskarazko lerroetan egitera joaten direnean, edo zuberotarren batek nobela edo ikerlanen bat egin nahi izaten duenean sortzen dira. Eta, hain zuzen, horrelako egoeretarako asmatu zen Euskara Batua; ez Zuberoba barruko eguneroko jardunean erabiltzeko.

Zeharo bestelakoa da, ostera, joan den hamarkadotan Euskara Batuaren inguruan zabaldu den irudia: euskara onarekin, euskara jasoarekin berdindu dute askok eta askok Euskara Batua, eta gertatu dena ikusteko, geure inguruko edozein herri euskaldun har dezakegu adibide.

Herri euskaldun askotan, alkate eta zinegotziek herritarren aurrean hitzaldiren bat egin behar dutenean, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jaso. Herri euskaldun askotan, apaizek Elizan, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jaso. Herri euskaldun askotan, irakasleek, eskola barruan ez ezik –eskola barrua bada-eta hizkera estandarren esparrua!–, eskolatik kanpo ikasleen gurasoekin edo ikasleekin eurekin elkartzen direnean ere, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jaso. Herri euskaldun askotan, herri barruko irratia edo telebisita sortzen denean, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jaso. Azken batean, herri euskaldun askotan, Euskara Batua erabiltzen da jardun jaso guzti-guztietan.

Jokabide honek oso ondorio okerrak ekarri ditu, uste izatekoa zenez. Herri euskaldun askotan, euren hizkera txarra dela, euren hizkera ezgauza dela sinestu du herritar xeheak, eta zein gurasok erakutsiko die bere seme-alabei txarra eta ezgauza den euskara! Txarra eta ezgauza dena gorde eta izkutatu egiten da, eta horrelaxe galdu da bertako betiko euskara, Euskal Herriko herri askotan.

Euskal Herriko herri askotan, ikastolara eta eskola euskaldunetara bidali dituzte gurasoek euren seme-alabak, eurek ez zekiten euskara “ona” ikastera. Eta ikastetxeetan euskara ona ikasten da, dudarik gabe, baina gazteen eguneroko jardunean egitura okerrak ere sortzen eta hedatzen dira oharkabea, eta baita ondo sustraitu ere, gurasoek eskolaren eta gainerako eragileen lana osatzen ez dutenean. Baina, jakina, gurasoek ez badakite euskara “ona”, nor ausartu gazteek darabilten euskara zuzentzera? Gazteek “lau pertsonaren atxiloketa eman zen atzo gauean” esaten badute, nor ausartu esatera “lau lagun atxilotu zituzten bart” izan dela orain arte, eta beti, ohikoa eta arrunta?

Baina beste urrats bat ere egin da Euskal Herriko herri askotan: gurasoak eurak ere ikastetxeetara doazen seme-alaben euskara “ona” ikasten hasi dira. Eta hori dela-eta, Euskal Herriko herri askotan, ea zer opari nahi duten euren *zorionetarako* galdetzen hasiak dira gurasoak seme-alabei, edota ea eskolan *pelotan jolasten* ote duten galdetzen ere hasiak dira. Gurasoek, jakina, *urtebetetzea / eguna* eta *pelotan jokatu* esan ohi dute euren bizi guztian, baina euren bizi guztikoa “euskalgaiztoa” omenenez, oraingo euskara “onera” moldatu behar, nahitaez.

Eta hauxe da gaur egungo euskarari etorri zaion hirugarren gaixotasuna: eten egin dela guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura, eten egin dela transmisioa. Eta hori ere ez da nolanhiko gaixotasuna; terminala da, hizkuntzak heriotze bidera eramaten dituzten horietakoa.

Gaixotasun honen sintomak aspaldi agertu ziren azalera, baina ez zen behar bezalako sendagairik ipini. Aspaldi ikusi zen gazteen euskara ez zela espero bezain ona, eta aspaldi ikusi zen betiko euskaratik nabarmen aldentzen zen hizkera exotiko eta berria garatzen ari zela, erdixantxetan erdi-benetan, *Marteko Euskara* deitu dudana.

HIZKUNTZA EGITASMO BERRI BATEN BEHARRA

Euskararen etsaia Madrilen eta Parisen –eta, aspaldi honetan, Iruñean– ikusten dute gure arteko zenbaitek, eta halaxe ikusten dut, egia esan, nik neuk ere, baina ez dezagun beti kanpoko etsaiarekin itsutu eta barrena lasaitu, geure baitan daukagu-eta gaixotasun askoren harra.

Nork agindu digu, esate baterako, euskara berbera eta modu bereborean irakatsi behar dela Lesakako eta Tafallako euskaltegietan? Nork agindu digu euskara berbera eta modu bereborean irakatsi behar dela Portugaleteko eta Lekeitioko ikastoletan? Nork agindu digu euskara berbera erabili behar dela Arrasate barruko *Arrasate Press* aldizkarian eta Euskal Herri osorako sortu zen *Euskaldunon Egunkaria*-n, eta nork agindu digu euskara berbera erabili behar dela Gasteizko eta Aramaioko udaletxeetako ohar eta iragarkietan? Erabaki zentzugabe eta ganorabako horiek ez dira ez Madrildik, ez Paristik, ez Iruñetik etorri, geure baitatik baizik, eta geure baitan daukagu, beraz, akats eta oker horiek zuzentzeko gaitasuna eta erantzukizuna.

Gaitasun eta erantzukizun hori dela-eta, orain arteko hizkuntza politika aldatu eta zuzendu egin behar dela uste dut. Lau gaixotasun larriren berri eman dut orain arteko kontakizunean:

- a. Euskarak, arlo batzuk landu ez direnez, hiztunak erakartzeko ahalmena galdu izana.
- b. Euskaldunoi hizkuntza sortzeko gaitasuna ihartu izana.
- c. Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura eten edo, behintzat, nasaitu egin izana.
- d. Euskararen betiko moldeekin zerikusirik ez duten egitura arrotz eta exotikoak garatu izana.

Lau gaixotasun hauen jatorrian arrazoi nagusi bi daudelakoan nago. Alde bate-tik, goizetik gauera egin eta hedatu nahi izan dugu Euskara Batua, eta bestetik, berriz, laster eta azkar handitu nahi izan dugu euskaldunen kopurua.

Euskara Batua indartu nahirik, alde batera utzi dira gainerako hizkerak. Eztabaida absurdo bat piztu da, gainera: ea Euskara Batua ala euskalkiak bultzatu behar ote diren, kontuan izan gabe Euskara Batua eta euskalkiak, biak direla hizkuntzaren zatiak, biak bata bestearen osagarriak. Eta kontuan izan gabe, bestalde, errejistro bi horietaz gainera, beste batzuk ere badituela hizkuntzak bere barrenean.

Euskaldunen kopurua handitu nahirik, berriz, soildu, murriztu eta erkindu egin dugu euskara. Euskaldun berriei bidea erraztea zen helburua, eta, jakina, zuzena zen, berez, helburua. Euskaldunen komunitate osoa helburu horren menpe jartzea da inondik inora ere zuzena ez dena.

Etorkizunera begira, beraz, hizkuntza politika berria eraiki beharra dago. Lehenengo eta behin, hizkuntza politikaren gunea bera aldatu behar da. Euskaldun berriak sortzea izan da orain arteko helburu nagusia, hiztun berriei begira antolatuta dira orain arteko egitasmo gehienak, eta bigarren mailan, baztertuta, geratu dira jatorrizko euskaldunak.

Ostera, egoera “normalean” dauden hizkuntzetan, hiztun natiboek osatu ohi dute hizkuntzaren gunea. Hiztun natiboak izan ohi dira eredutzat hartu ohi direnak, eta hiztun berriak dira eredu horretara hurbiltzen ahalegintzen direnak. Euskal Herrian ere, beraz, herri euskaldunak izan behar dira hizkuntzaren gunea hemendik aurrera.

Bestelako erabakiak alde batera utziaz, eta hizkuntzari berari dagokionez, era bitako neurriak hartu behar lirateke abian jarri beharreko egitasmo berrian:

- a. Herri euskaldunetan bertako hizkera indartzea.
- b. Euskara Batua herriko euskaran oinarritzea.

1. Herri euskaldunetako hizkera indartzeaz

Herri euskaldunetan bertako hizkera erabili eta indartu behar da herri barruko ahozko jardunetan: Haur Hezkuntzan, Udalean eta herriarrekin hartu-eman zuzena duten gainerako administrazio esparruetan, herri barruko irrati eta telebista saioetan, Elizan, batzar eta hitzaldietan, eta, jakina, lagunartean eta familian.

Komenigarria da idatzizko zenbait esparrutan ere herriko hizkera agertzea: herriarrendako ohar eta iragarki laburretan eta herrietako aldizkarietan, esate baterako. Idatzizko esparruetan, baina, hizkera jasoa, gramatika aldetik zuzena, eta Euskara Batuaren ortografia arauak betetzen dituen bultzatzea komeni da.

Honekin guztionekin, hiztunak bere buruan konfiantza eta ziurtasuna izatea bilatu behar da, horixe delako, hain zuzen, gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura gauzatu ahal izateko ezinbesteko baldintza. Norberaren euskara gaiztoa den konplexuak baztertu, eta gure betiko euskara ona dela –edo izan daitekeela– sinestu behar dugu.

Herri euskaldunetako hizkera bultzatzeak beste helburu bat ere badu. Hizkuntza bat familian eta lagunartean erabiltzen denean, orduan lortzen da hiztunaren eta hizkuntzaren arteko lotura, orduan lortzen da hiztunaren eta hizkuntzaren arteko jolasa, eta hizkuntzarekin jolas egiten denean, berez sortzen dira hitz eta esapide berriak, eta, denok dakigunez, hizkuntzak iraungo badu, sortuaz eta sortuaz joan behar du etengabe. Hain zuzen, euskalkien arabera, hitz egin, berba egin, elestatu, mintzatu esan ohi dena, Nafarroako alderdi batzuetan jolas egin esaten da, eta horixe da, nafarrek ez ezik, gainerako euskaldun guztiok ere egiten ikasi behar duguna: hizkuntzarekin jolas. Euskaraz hitz egitea izan da orain arteko helburua, eta, aldiz, euskaraz jolas egitea izan behar luke egitasmo berriko lehentasuna.

2. Euskara Batua herrietako euskaran oinarritzeaz

Ezinbestekoa da Euskara Batuaren izaera malgutzea. Egoki dator, jakina, Euskal Herri osorako izkribu eta hitzaldietan hizkera berdina samarra erabiltzea, txokokeriarik gabea, euskalkien gehiegizko eraginik gabea. Baina beste kontu bat da

herri barruko zereginetarako denean. Beste kontu bat da herri jakin bateko eskoletan, lantegietan, udaletxeetan, eta ezinbestean Euskara Batua erabili beharreko gainerako esparruetan izan behar den jokabidea.

Adibide bat erabiliko dut esan nahi dudana azaltze aldera. Lesakako Laminaciones lantegian, konparazio baterako, leku askotako langileak ari dira. Jo dezagun Baztango eta Basaburuko nafarrak, giputzak eta bizkaitar banaka bat direla tartean. Garbi dago zaildu egiten duela horrek lantegi barruko oharrak Lesakako hizkera gordinean egitea. Jo dezagun, ba, Euskara Batua erabiltzea dela egokiena. Ados, baina nik neuk ez nuke erabiliko edozein batu, Lesakako eta Bortzirietako batua erabiliko nuke. Adibidez, honako hauxe:

Ortegunean, arratsaldeko lauretan, bilera eginen dugu, heldu den urteko konbenioaren gainean solasteko.

Arrasateko lantegi batean ere leku askotako langileak ari daitezke lanean: Durangaldeko bizkaitarrak, Goierriko giputzak eta Gasteiz aldeko euskaldun berriak, esate baterako. Pentsa dezagun, ba, ezin dugula erabili Arrasate bertako hizkera gordina. Ados horretan ere, baina Batua erabiltzekotan, Arrasateko edo Leinzko batua erabiliko nuke. Adibidez, honako hauxe:

Eguenean, arratsaldeko lauretan, batzarra egingo dugu, datorren urteko konbenioaren gainean berba egiteko.

Txikikeria zenbait gorabehera, Batua da ohar bi horietako hizkera, gaur egun sarrien ikusten dugun beste esaldi honetako hizkera bezain batua, behinik behin:

Ostegunean, arratsaldeko lauretan, asanblada egingo dugu, datorren urteko konbenioari buruz hitz egiteko.

Ez da hau ez unea eta ez gunea asanblada eta konbenioari buruz horien jatortasunaz eta zuzentasunaz eztabaidatzeko, baina jatortasuna eta zuzentasuna alde batera utzita, egokitasuna da kontuan izan beharrekoa. Eta inolako zalantzarik gabe, Lesakako lantegirako, lehenbiziko oharra da argiena eta egokiena, eta bigarrena, berriz, Arrasateko lantegirako. Eta berdintsu jokatu behar litzateke gizarteko gainerako esparruetan. Garbi dago Lekarozko institutuan, Gernikakoan, eta Kanboko “Xalbador” ikastolan Euskara Batua izan behar dela lan-tresna, baina hiru leku horietako bakoitzean, bertako Euskara Batua erabili behar litzatekeelakoan nago. Eta, azken batean, horixe besterik ez da, nire iritziz, euskalkiek Euskara (Batua) hornitzeko eta aberasteko bidea, gutariko askok zeharo beste moduz ulertzen dutena³.

Orain arte ibili gabeko bide honetan abiatuz gero, hainbat korapilo askatuko ditugulakoan nago.

Alde batetik, errazago lortuko dugu beste alderdi batzuetatik herri jakin batera joandako euskaldunak bertakotzea. Laminaciones lantegian lan egiteko Lesakara joan den bizkaitarrak, esate baterako, jakin egin behar luke *heldu den, eginen, ortzeguna, bilera, solastu* zer diren, eta hori jakinda, errazago ekanduko da Lesakako bizimodura.

3 Euskalkiek Euskara Batua aberastu behar dutela-eta, *barik, zelan, gagoz, lagunagaz* bezalako aldaerak sartzen ditu zenbaitek Euskara Batuan, eta, nire iritziz, hor ez dago inolako aberastasunik. Are gutxiago premiarik gabeko erdarakadak sartzean: gure artean hain maiz ikusten diren *sobera, prefosta, asunto & afera, atoan, pulamentu, derrepente, derrigor, primerakoa* bezalakoak datozkit gogora.

Bigarrenik, lesakarra bera Euskara Batua egiterakoan bere hizkeratik abiatzen bada, euskara zuzenagoa eta biziagoa egingo du. Askozaz zuzenagoa eta biziagoa, ez berea ez inorena ez den eredia erabilia baino.

Hirugarrenik eta azkenik, errazago lortuko genuke hasieran aipatutako helburua betetzea: euskaldun guzti-guztiek onartu behar dutela Euskaltzaindiak aurkeztu duen Euskara Batua. Eta bereziki nabarmendu nahi dut azken kontu hau, euskara estandarizatu eta normalduko bada oinarri-oinarritzkoa delako euskaldun guztiek Euskara Batua onartzea.

Gaur egungo euskaldun gehienek, hain zuzen, “inorentzat” dute Euskara Batua. Ipar Euskal Herriko askok Hegoaldeko kontutzat dute, ‘hegoaldeko euskara + espainola’ dela diote. Hego Euskal Herrira etorri, eta nafarrei, arabarrei eta bizkaitarrei galdetuta, zera diote: ‘euskara giputza’ dela Euskara Batua. Gipuzkoara joanez gero, azkenik, han bai, han badira Euskara Batua oso eurentzat dutenak, eta lasai asko *det, gera, dijoa, nere, bezela, eskubi* esan eta idazten dutenak, Euskara Batuan dihardute-nean. Baina, jakina, hori ere ez da kontua.

Zalantzarik gabe, euskara normalduko bada, iritzi horiek zeharo baztertu behar dira. Euskaldun guztiak eta bakoitzak *beretzat eta etxekotzat* izan behar du Euskara Batua. Eguneroko darabilena baino jasoagoa, eta bere inguruko adiskideekin darabilena baino zabalagoa, baina, azken batean, berea. Eta, nire iritiz, helburu horretara ez gara sekula helduko oraingo Euskara Batu ertsiaz eta itxiaz.

Ostera, beste hauxe da euskaldun guztiari eta bakoitzari buruan eta bihotzean sartu behar zaiona: Euskara Batua, ‘bere herriko hizkera + arau jakin batzuk’ besterik ez dela. Hau da, Euskara Batua erabili behar duenean, ez duela bere hizkera beste batera “itzuli” behar. Bergarako hitzun batek, esate baterako, *etxera noia, kantsauta nago-eta* esaten baldin badu bere eguneroko jardun arruntean, *etxera noa, nekatuta nago-eta* esan dezake, lasai-lasai, Euskara Batuan. Horrela hitz egiten badu, lasai eta eroso jardungo du, euskara zuzena egingo du, hizkuntzarekin jolas ere egin ahalko du, eta, gainera, Euskara Batua erabiliko du.

Zoritxarrez, baina, bere *etxera noia, kantsauta nago-eta* hori *etxera noa, nekatuturik bainago* bilakatu ohi du sarri, eta hori ere zuzena eta Batua den arren, ez du ez hain “berea” eta ez hain “berezkoa”, eta “inoren eremuan” jokatuta, nekez lortuko du hizkuntzarekin benetan jolastea eta gozatzea, eta, azken batean, nekez lortuko du, hizkuntza sortzea. Sarritan, gainera, euskara zuzena egitea ere ez du lortuko, zaila delako, hizkuntzalari ez denarendako, “inoren zelaiko” arauak zuzen ikastea eta menderatzea.

Egitasmo berri hau aurrera eramateko, ezinbestekotzat jotzen dut irakaskuntzan, herri barruko hedabideetan eta herri barruko administrazio erakundeetan iraultza bat egitea.

Herri euskaldunetan, herri horietako euskara erabiltzeaz gainera, herri horietako hizkeratik abiatu behar da Euskara Batua egiterakoan ere: *noia* -> *noa* eta *kantsau* -> *nekatu* aldatzeak ez du esan nahi *nekatuta* -> *nekatuturik* eta *nago-eta* -> *bainago* aldatu behar direnik.

Horra hor, labur esanda, egitasmo berriko ardatz nagusiak. Ez dira, jakina, euskararen gaitz guztiak sendatzeko aski indartsuak, baina, behinik behin, arnasa lasaia-

go hartzeko balioko dutelakoan nago, eta badugu, bai, patxada eta lasaitasun horren beharra!

ARGIBIDE BIBLIOGRAFIKOAK

ARANBARRI, Iñigo (2001). *Hitzak eta giltzak*. Irun: Alberdania.

IRIZAR, Pedro (1973). “Los dialectos y variedades de la lengua vasca”, *BAP* 29: 3-78.

Berrarg. in *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (I): 171-220.

Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

RODRÍGUEZ, F. & I. ESNAOLA (arg) (1998). *Euskara mintzatuaeren erronkak*. Donostia: EHU.

URKIJÓ, Julio (arg) (1910). “Cartas escritas por el príncipe L-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV* 4: 233-297.

SARASOLA, Ibon (1997). *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.

Les modèles de la langue et leurs niveaux de réalité

Jean-Paul Bronckart

Section des Sciences de l'Education

Université de Genève

L'objet de cette conférence est d'engager une réflexion sur le statut des langues naturelles et sur celui des conceptions, représentations et/ou modèles élaborés à propos de ces langues.

Cette réflexion sera organisée en trois temps. Nous procéderons d'abord à un bref examen des positionnements philosophiques et épistémologiques qui sous-tendent et orientent notre conception du langage, dans ses rapports au monde et à l'activité humaine. Nous proposerons ensuite une analyse détaillée des propriétés de l'activité langagière et des systèmes de langues, qui s'inspire du cadre théorique de l'interactionnisme socio-discursif que nous défendons. Sur cette base, nous développerons enfin une réflexion sur les différents niveaux de connaissance ou de "savoirs" qui sont élaborés à propos de la réalité langagière, qui débouchera sur une tentative de clarification de la position que les chercheurs en sciences du langage ou en didactique se devraient de prendre dans le débat entre la vie et l'évolution des langues d'une part, les règles, modèles et normes qui visent à stabiliser ces mêmes langues d'autre part.

1. L'ARRIÈRE-FOND PHILOSOPHIQUE DE NOS APPROCHES DU LANGAGE ET DES LANGUES

Il y a plus de trente siècles que la philosophie occidentale, puis plus récemment les sciences humaines/sociales, discutent du statut du langage, dans ses rapports au monde extérieur, à la pensée et à l'activité humaines. N'ayant pas la prétention de dresser un bilan exhaustif de ces réflexions complexes et profondes, nous nous bornerons, en nous inspirant des travaux de De Mauro (1969), à mettre en évidence l'existence de deux courants de pensée majeurs, et de rappeler les caractéristiques principales des positions qu'ils ont générées.

Le premier courant, qui a toujours été dominant, défend une conception du langage que l'on peut qualifier de représentationnaliste: il considère que la fonction première du langage est de "traduire" des entités physiques ou mentales préexistantes,